

**2022KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko irailaren 27an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

\*2022-06-28ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

\*2022-07-27ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO EKAINAREN 23TIK 2022KO IRAILAREN 20RA (2022/162 - 2022/254).**

Alkatetzak 2022ko ekainaren 23tik 2022ko irailaren 20ra bitartean (2022/162-2022/254) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2021EKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.**

Alkateak aurrekariak azaldu ditu eta alegaziorik egon ez denez onartzea proposatu du.

#### **2021EKO KONTU OROKORRA ONARTZEA**

Behin 2021eko ekitaldia amaiturik, Aurrekontuaren exekuzioa eta Likidazioa onartu zuen Irurako Udalak, 2021ko apirilaren 19an 104/2021 Alkatetzak emandako Dekretuaren bidez. Eta Dekretu horren berri eman zitzaion Udal Batza Osoari. Gainera, 2022ko irailaren 21ean egindako ohiko osoko bilkuran, 2021eko ekitaldiko komunikazioaren berri eman zitzaion batzarkide guztiei.

Geroztik, 2021 ekitaldiko Kontu Orokorra osatu zen, eta indarrean dagoen araudiari jarraituz, Kontuen Batzorde Bereziaren oniritzia jaso zuen 2022ko abuztuaren 26an. Jarraian, 15 lanegunez jendaurrean egonda, 2022ko abuztuaren 31an 166zk.an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik. Erakusketa publikoaren epealdian inolako erreklamaziorik jaso ez denez, hasieran emandako aldeko iritzia behin betikoa bihurtu da eta Udal Batza Osoak onartu behar du Kontu Orokorra uztailaren 31 baino lehen.

Beraz, indarrean dagoen araudia jarraituz, udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia emanik, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2020ko Kontu Orokorrari behin betiko onarpena ematea. Horren aldeko 3 bozka jaso direlarik (EH Bildu eta EAJ) aho batez onartua geratu delarik.

Irura, 2022ko irailaren 21ean

**Ogasun Batzordeko Idazkaria.**

### **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **4.- ANOETAKO IKASTOLAK EGINDAKO DIRULAGUNTZAREN ONARPENA.**

Gorka Alkateak hartu du hitza eta adierazi du gaia ogasun batzordean tratua izan zela eta HABI proiektuaren ideia orokorra azaldu du.

Halaber, eskatzen den diru kopurua 30.000-35.000 euro inguruko kopurua dela eta Irurako ikasle kopuruaren datuak ere aurkeztu dituztela adierazi du. Garrantzitsua ikusi genuen beraien proiektua eta laguntza baldintza jakin batzuen baitan ematea ongi ikusten dugu. Baldintza horiek hitzarmenean garbi jasoak azaltzen dira baita zurikera egiteko garaian ere eman beharreko pausuak.

Ana EAJ/PNV-ko zinegotziak jarrian adierazi du, HABI proiektu honekin ados daudela, akordio proposamena hemen jartzen duenarekin ere ados daudela baina ez daudela ados finantzaketarekin, azken batean ikastolarentzako dela eta iruditzen zaiela Anoetako ikastolak ere parte hartu beharko lukeela eta ez bakarrik hiru erakundeen laguntza ekonomikoarekin.

Alkateak erantzun du, aurkeztu zuten Anoetako Ikastolaren egoera ekonomikoa azaldu ziguten eta funts solidarioen bitartez aritu direla gastuak ordaintzen.

Partehartzean ados gaude, baina abstenitu egingo gara.

Bozkatuko den diktamena:

**Prozedura: DIRULAGUNTZA 2022DILA0048**

**Gaia:** Anoetako ikastolak HABI proiektua gauzatu ahal izateko dirulaguntza.

### **OGASUN BATZORDEARI PROPOSAMENA**

Anoetako Herri Ikastolak dirulaguntza eskaera egin du, ikusirik Ikastolak jasotzen dituen ikasleen matrikulazioaren %50a Iruratar haurrak direla egoki ikusten da proposamen hau aztertzea.

Halaber, hezkuntza ereduaren etengabeko aldaketa dela eta, Anoetako Herri Ikastolak aurkezten duen proiektuaren xedea honakoa hau da: HABI, proiektuak pertsonen barne-sendotasuna eta pertsonen arteko harremanak garatzeko eta gizartean sortzen ari diren behar eta erronka berriei erantzuteko eta atzean ez geratzeko beharrei erantzuten die. Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusi da, espedientean jasota dagoena.

Alkatetzak proposatuta, Udaleko idazkari-kontuhartzailearen txostenekin bat etorritz, Batzordeari honako hau helarazten zaio:

### **AKORDIO PROPOSAMENA**

**LEHENENGOA** Anoetako Herri Ikastolari HABI proiektua DBHn garatzeko espazioen eraldaketa egiteko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA.** Emango den dirulaguntza baldintzatua egongo da:

- Obraren kostuaren gehiengo kopurua 105.000€tik gorakoa bada, Irurako Udalak ez du gainkostu hori diruz lagunduko.
- Espazioen eraldaketa egiteko behar izango den diruaren herena (1/3) izatea eta beti ere gehinez ere 35.000€koa.
- Anoetako Herri Ikastolak zuri-keta aurkeztu beharko du dirulaguntza justifikatzeko

**HIRUGARRENA.** Dirulaguntzaren gastua 2023ko aurrekontuari egokitzea eta arau hauek betetzea:

- 38/2003 lege orokorra azaroaren 17koa diru laguntzei buruzkoa betetzea.
- Irurako dirulaguntzen ordenantza
- Irurako 2022-2024 dirulaguntzen plan estrategikoa.

**LAUGARRENA.** Irurako 2022-2024 dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea.

**BOSGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

**BOZKETA.- EH BILDU TALDEKO, ALDEKO BOST BOZKA, ETA EAJ/PNV TALDEKO**

**LAU ABSTENTZIO.  
PROPOSAMENA ONARTUA GERATU DA.**
**5.- 2022-KALD-0009 KREDITU ALDAKETA.**

Ogasun batzordean gaia tratatua dago eta diktamenean kreditu gehigarria azaltzen diren partiden azalpenak eman ditu Alkateak.

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.226.334.00.06 2022	Kultur ikastaroak eskulanak	3.200,00	3.200,00	6.400,00
1 0000.226.338.00.26 2022	Festak: San Migelak	48.000,00	19.000,00	67.000,00
1 0000.215.920.00.00 2022	Material informatikoa, konponketak	2.000,00	5.000,00	7.000,00
1 0000.601.171.00.00 2022	Laskibar auzoko haur parkea	50.000,00	38.000,00	88.000,00
1 0000.201.920.00.00 2022	Apaiz etxeko lokalen alokairua	18.000,00	3.000,00	21.000,00
1 0000.227.231.00.02 2022	Adinekoei su-detektagailuak	900,00	5.000,00	5.900,00
<b>GUZTIRA</b>		122.100,00	73.200,00	195.300,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	REMANTE DE TESORERIA	73.200,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>73.200,00</b>

## **KODEEN AZALPENA**

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

IRURA, 2022ko irailaren 15ean

Talde politikoko bozeramalea

## **OGASUNEKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Idazkari kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 73.200,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.

IRURA, 2022ko irailaren 21ean  
Ogasuneko Batzorde Informatiboako burua

## **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **6.- URNIETAKO UDALAREKIN SINATZEKO KUDEAKETA GOMENDIOA ADMINISTRARI PLAZAREN KUDEAKETARAKO.**

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du Administrari plaza prozesua Urnietako udalarekin egiteko aukera suertatu zaigu eta lana erraztuko digulako eta baliabide gehiago dituztelako kudeaketa-gomendio sinatzea Irurako udalarentzat aukera ona dela eta aprobetxatzea dela onena.

Bozkatuko den diktamena:

**Expediente n.º:** 2022IDAZ0034

**Asunto:** Administrari plaza baten hautaketa-prozesurako gomendioa

## **OGASUN ETA PERTSONAL BATZORDEAREN DIKTAMINA**

### **Justifikazio beharra:**

Irura eta Urnietako udaletako administrari-plazak egoera honetan daude:  
Irurako Udala: hutsik. Gaur egun, bitarteko funtzionario batek betetzen du.  
Urnietako Udala: hutsik. Gaur egun, bitarteko funtzionario batek betetzen du.  
Lanpostu hori 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu zen, zeina Urnietako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu baitzuen 2021eko urriaren 14an egindako ezohiko bilkuran.  
Egoera horren aurrean, bi udalek gaur egun enplegu-eskaintza horiek gauzatzeko premia bera dutela ikusita, hitzarmen honen helburua ahaleginak batzea da.  
Administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jardura materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde batzuei agindu ahal izango zaizkie, baldin eta haien eskumenen artean jardura horiek badaude, eraginkortasunari begira komeni bada, edo jardura horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.  
Kasu honetan, eraginkortasun-arrazoiengatik egiten da. Urnietako Udalak eta Irurako Udalak batera garatuko balute administrari-lanpostu biak betetzeko hautaketa-prozesu bakarra, alde batetik, giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera erraztuko litzateke, eta, bestetik, erraztu egingo litzateke hautagaiak hautaketa-prozesuan sartzea.  
Gainera, bi udalerrien ezaugarriak kontuan hartuta, espero liteke aldi berean baina bereizita dei daitezkeen hautaketa-prozesuetarako hautagaiak berdinak izatea, izapideak eta horien antolaketa bikoiztuz.  
Era berean, artikuluko horretako 3. zenbakiko b) letrak adierazten du administrazio desberdinetako zuzenbide publikoko organo eta erakundeen artean egiten den kudeaketa-gomendioa haien arteko hitzarmena sinatuz formalizatuko dela.  
Horren aurrean, eta Urnietako Udalak horretarako behar diren bitarteko teknikoak eta giza baliabideak dituela jasota, honako Hitzarmen hau sinatu dute.

Considerando que la necesidad anteriormente expuesta podría satisfacerse a través de una encomienda de gestión a favor de Urnietako Udala.

Expedientean dauden txostenak ikusirik.

Irurako Udalbatzari proposatzen zaio honako,

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA.** Urnietako Udalarekin Hitzarmena sinatzea.

**BIGARRENA.** Gomendio-kudeaketaren prozedurak dakartzan beste hainbat tramiteetarako Gorka Murua Macuso, Irurako Alkate jauna ahalduntzea.

**BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

**7.- TOLOSAGO HILTEGI MANKOMUNATUKO 2022KO EKITALDIKO EKARPENA ORDAINTEA.**

Alkateak 2023ko ekarpena azaldu du:

Honekin batera bidaltzen dizut Tolosako hiltegi eskualdetarraren gestiorako udalerrri mankomunitateak, aho batez, onartuta, 2022ko ekarpenari buruzko erabakia, zure Udalari dagokion ekarpena egin dezazula eskatuz, honako Kutxabank entitateko zenbakian: ES40 2095 5067 13 1061228432. Denen ekarpenekin, hiltegiko langilearen soldata eta erakundearen kudeaketa ekonomiko finantzarioa, lege aholkularitza eta horrek sortzen duen lan administratiboa ordaindu ahal izango ditu Mankomunitateak.

Era berean, eskatzen dizuet ekarpena 2022ko abenduaren 31 baino lehen egitea.

## **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **8.- ESKOLA KIROLA HITZARMENAK ONARTZEA.**

Alkateak adierazi du, urtero Ikastolarekin sinatzen den Eskola kirola hitzarmena sinatzea jardunak diruz laguntzeko.

2021-2022 ekitaldiko eskola kiroleko hitzarmena:

Iruran, 2021eko urriaren 29an

Alde batetik, GORKA MURUA MACUSO Irurako Alkate-Lehendakari Jn.-a Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2021eko urriaren 26an hartutako erabakiz, ekintza honetan Udalaren izen eta ordezkari zapean aritzeko egokiro baimendua izan dena eta nik lagunduta Irantzu Arrizabalaga Gainza And., Irurako Udalaren idazkari- kontuhartzailea fedea emateko legearen arabera.

Bestetik, N.A.N. 44.152.754E zenbakia duen, IMANOL AGUIRRE PEÑA Jn., Irurako Ikastolako Lehendakaria, Ikastola honen izen eta ordezkari zapean, 2020ko abenduaurren 16an eginiko batzar orokorraren baitan .

### **AZALPENA**

Indarrean dagoen arautegiaren arabera (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena), Udal administrazioei dagokie foru organoek egin eta onartutako eskola kirolari buruzko programak aurrera eramaten koordinatuki laguntzea.

Eskola kirolari buruzko 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 dekretuaren arabera, ikastetxeak dira eskola kirola egiteko oinarritzko lekuak eta ikasleei kirola egiteko bidea ireki behar dienak, antolaketa, heziketa eta administrazioaren arduradun izanez.

Arautegi horri jarraituz, Irurako Udalak eta Irurako Ikastola Koop. Elk.-k interesgarritzat jotzen dute ikastetxeak parte hartzea eskola kirola begiratu eta kudeatzeko egiturak jarri eta gauzatzen.

### **KLAUSULAK**

1.-Irurako Ikastola kooperatiba Elkartek bere gain hartzen du eskola kirola aurrera eramateko behar den egitura garatzeko konpromisoa, jarduera horiek eskatzen dituzten koordinazio, teknika eta heziketa lanak egiteko beharrezkoa izango dena.

2.- Egitura horren barruan eskola kiroleko koordinatzailearen figura egongo da. Eta ikastola izango da koordinatzaile horren eta behar diren eskola kiroleko teknikarien eta zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen ordezkarien arteko harremanak zehaztuko dituena, Kirol jarduera horiek ikastetxearen heziketa proiektuan txertatuta gera daitezzen.

3.- Kirol jardueretan lan egingo duten guztiak elebidunak izan daitezela bermatu behar du ikastolak, eta bere eskuan dagoen guztia egingo du eskola kirolean ohizko hizkuntza euskara izan dadin.

4.- Ikastolak egingo du ikasturte bakoitzean eskola kirolean gauzatuko diren jardueren programa eta programa horretan jarduera guztiak sartuko ditu (ikastolan bertan edo klub batean). Jarduera programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programak finkatutako jarraibideak, udal Kirol politikaren interesak eta ikastolaren beraren helburuak kontuan hartuz egingo da.

5.- Ikastolak heziketa eta jolas lehiaketarako kirol anitzeko programa egin eta benjamin eta alebinen kategorietan, aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.

6.- Ikastetxeak eskola kiroleko heziketa helburuak betetzen direla zaindu behar du, ikasle guztiei dauden jardueretan, helburuak lortzeko moduko baldintzetan, parte hartzeko bidea emanaz.

7.- Udalak eskola kiroleko jarduerak gauzatzeko herrian beharko lirakekeen Kirol instalazioak jarriko ditu.

8.- Ikastolak herriko Kirol klubak laguntza eskatuko du, ikasle gazteenak hasi behar dutenean kirola egiten kirol klub horietako teknikariek parte har dezaten, ikastolak finkatutako heziketa helburuei jarraituz. Era berean, ikastolak bideak ireki behar ditu, adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikasleek kirola egin dezaten, bai errendimendu lehiaketetan bai jolasekoetan, eskola urteak amaitu ondoren.

9.-Ikastola izango da egitura hori finantzatzeko behar diren baliabideak erabakiko dituena, hor sartuko direlarik parte-hartzaileen ekarpenak, ikastolaren titularrarenak, gurasoen elkartearenak, herri diru-laguntzak edo egokitze hartzen duen bestelako edozein.

10.- Irurako Udalak eskola kiroleko jarduerak kudeatzeko, ikastolak eta udalak osatutako eskola kiroleko batzordea eratu eta aurrera ateratzeko konpromisoa hartzen du, horretarako behar diren baliabideak jarriaz.

11.-Udalak herriko Kirol instalazioak eskolako kiroleko jardueretan erabiltzen uzteko konpromisoa hartzen dute, udalerriko kirol instalazio guztien erabilera koordinatu baten barruan.

Frontoiaren kasuan, astean zehar, arratsaldetan, 18:30arteko jardueretan, frontoiaren zati bat herritarrek erabiltzeko utzi beharko du ikastolak.



12.- Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, eskola-kirolaren egiturak 2021-2022 ikasturtean zehar eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak helburu horretarako udalari ematen dion toki erakundeei eman beharreko diru-laguntza kontzeptuan ematen diona eta beste hainbeste, aipatu gastuei aurre egiteko.

13.-Gainera, Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, igeriketa kanpainak 2021-2022 ikasturtean eragindako gastuari aurre egiteko, kanpainan parte hartutako ume bakoitzeko 7€ko diru-laguntza, beti ere ikastolak kanpainak eragindako informazioa udalean aurkeztu ondoren.

14.- Diru ekarpena finantzatuko da 2022ko Aurrekontuaren partida honetatik:  
1.00.00.481.326.00.10

15.-Hitzarmena sinatu ondoren, ikastolak ondorengo agiri hauek aurkeztu behar ditu:

Egituraren diseinua: helburuak, edukia eta antolakuntza.

Ikastolaren eskola kiroleko jardueren urteko programa.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntza zuritzeko eskatzen duen Memoria eskola Kirola 2021-2022 formularioa behar bezala bete eta bertan agertzen diren datuak egiaztatzeko agiriak.

d) Kirol klubekin lankidetzak hitzarmenak izenpetu baditu, hitzarmen horien kopia.

e)Gainera, hurrengo agiriak ere aurkeztu behar ditu:

-Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak egunean dituztela egiaztatuko dituen agiriak.

-Aitortza arduratsua, betetzen dituela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. Artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko baldintzak.

16.- Hala ere, bete behar ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruz otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatutako baldintzak, eta haien artean: Irurako ikastolak, genero-ikuspegia kontutan hartu beharko du ondorengoak betez:

-Ikastolaren jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

-Bermatu beharko du, ikasle guztiak aukera berdina edukitzea sexuaren araberako bereizketarik egin gabe. Gainera, ez du onartuko ikasleen arteko genero bereizketarik.

-ez du sortuko sexuagatiko bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

17.- Hitzarmen honen klausulak interpretatzeko orduan gerta daitezkeen zalantzak udalak erabakiko ditu.

18.-Hitzarmen honetako klausulak ez betetzeak hitzarmena desegitea ekarriko du.

Nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut, eta bi alderdiak ados daudela adierazteko, hitzarmen hau izenpetu dute nirekin batera, goian adierazitako egun eta lekuan.

ALKATEA

IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA.

2022-2023 ekitaldiko eskola kiroleko hitzarmena:

Iruran, 2022eko irailaren 28an

Alde batetik, GORKA MURUA MACUSO Irurako Alkate-Lehendakari Jn.-a Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2021eko urriaren 26an hartutako erabakiz, ekintza hontan Udalaren izen eta ordezkari zapean aritzeko egokiro baimendua izan dena eta nik lagunduta Irantzu Arrizabalaga Gainza And., Irurako Udalaren idazkari- kontuhartzailea fedea emateko legearen arabera.

Bestetik, N.A.N. 44.152.754E zenbakia duen, IMANOL AGUIRRE PEÑA Jn., Irurako Ikastolako Lehendakaria, Ikastola honen izen eta ordezkari zapean, 2020ko abendaren 16an eginiko batzar orokorraren baitan .

### **AZALPENA**

Indarrean dagoen arautegiaren arabera (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena), Udal administrazioei dagokie foru organoek egin eta onartutako eskola kirolari buruzko programak aurrera eramaten koordinatuki laguntzea.

Eskola kirolari buruzko 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 dekretuaren arabera, ikastetxeak dira eskola kirola egiteko oinarritzko lekuak eta ikasleei kirola egiteko bidea ireki behar dienak, antolaketa, heziketa eta administrazioaren arduradun izanez.

Arautegi horri jarraituz, Irurako Udalak eta Irurako Ikastola Koop. Elk.-k interesgarritzat jotzen dute ikastetxeak parte hartzea eskola kirola begiratu eta kudeatzeko egiturak jarri eta gauzatzen.

### **KLAUSULAK**

1.-Irurako Ikastola kooperatiba Elkarteak bere gain hartzen du eskola kirola aurrera eramateko behar den egitura garatzeko konpromisoa, jarduera horiek eskatzen dituzten koordinazio, teknika eta heziketa lanak egiteko beharrezkoa izango dena.

2.- Egitura horren barruan eskola kiroleko koordinatzailearen figura egongo da. Eta ikastola izango da koordinatzaile horren eta behar diren eskola kiroleko teknikarien eta zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen ordezkarien arteko harremanak zehaztuko dituen, Kirol jarduera horiek ikastetxearen heziketa proiektuan txertatuta gera daitezen.

3.- Kirol jardueretan lan egingo duten guztiak elebidunak izan daitezela bermatu behar du ikastolak, eta bere eskuan dagoen guztia egingo du eskola kirolean ohizko hizkuntza euskara izan dadin.

4.- Ikastolak egingo du ikasturte bakoitzean eskola kirolean gauzatuko diren jardueren programa eta programa horretan jarduera guztiak sartuko ditu (ikastolan bertan edo klub batean). Jarduera programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programak finkatutako

jarraibideak, udal Kirol politikaren interesak eta ikastolaren beraren helburuak kontuan hartuz egingo da.

5.- Ikastolak heziketa eta jolas lehiaketarako kirol anitzeko programa egin eta benjamin eta alebinen kategorietan, aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.

6.- Ikastetxeak eskola kiroleko heziketa helburuak betetzen direla zaindu behar du, ikasle guztiei dauden jardueretan, helburuak lortzeko moduko baldintzetan, parte hartzeko bidea emanaz.

7.- Udalak eskola kiroleko jarduerak gauzatzeko herrian beharko lirartekeen Kirol instalazioak jarriko ditu.

8.- Ikastolak herriko Kirol klubak laguntza eskatuko du, ikasle gazteenak hasi behar dutenean kirola egiten kirol klub horietako teknikariek parte har dezaten, ikastolak finkatutako heziketa helburuei jarraituz. Era berean, ikastolak bideak ireki behar ditu, adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikasleek kirola egin dezaten, bai errendimendu lehiaketetan bai jolasekoetan, eskola urteak amaitu ondoren.

9.-Ikastola izango da egitura hori finantzatzeko behar diren baliabideak erabakiko dituen, hor sartuko direlarik parte-hartzaileen ekarpenak, ikastolaren titularrarenak, gurasoen elkartearenak, herri diru-laguntzak edo egokitza hartzen duen bestelako edozein.

10.- Irurako Udalak eskola kiroleko jarduerak kudeatzeko, ikastolak eta udalak osatutako eskola kiroleko batzordea eratu eta aurrera ateratzeko konpromisoa hartzen du, horretarako behar diren baliabideak jarriaz.

11.-Udalak herriko Kirol instalazioak eskolako kiroleko jardueretan erabiltzen uzteko konpromisoa hartzen dute, udalerriko kirol instalazio guztien erabilera koordinatu baten barruan.

Frontoiaren kasuan, astean zehar, arratsaldetan, 18:30arteko jardueretan, frontoiaren zati bat herritarrek erabiltzeko utzi beharko du ikastolak.

12.- Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, eskola-kirolaren egiturak 2022-2023 ikasturtean zehar eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak helburu horretarako udalari ematen dion toki erakundeei eman beharreko diru-laguntza kontzeptuan ematen diona eta beste hainbeste, aipatu gastuei aurre egiteko.

13.-Gainera, Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, igeriketa kanpainak 2022-2023 ikasturtean eragindako gastuari aurre egiteko, kanpainan parte hartutako ume bakoitzeko 7€ko diru-laguntza, beti ere ikastolak kanpainak eragindako informazioa udalean aurkeztu ondoren.

14.- Diru ekarpena finantzatuko da 2023ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.00.00.481.326.00.10

15.-Hitzarmena sinatu ondoren, ikastolak ondorengo agiri hauek aurkeztu behar ditu:

Egituraren diseinua: helburuak, edukia eta antolakuntza.

Ikastolaren eskola kiroleko jardueren urteko programa.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntza zuritzeko eskatzen duen Memoria eskola Kirola 2022-2023 formularioa behar bezala bete eta bertan agertzen diren datuak egiaztatzeko agiriak.

d) Kirol klubekin lankidetzak hitzarmenak izenpetu baditu, hitzarmen horien kopia.

e)Gainera, hurrengo agiriak ere aurkeztu behar ditu:

-Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak egunean dituztela egiaztatuko dituen agiriak.

-Aitortza arduratsua, betetzen dituela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. Artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko baldintzak.

16.- Hala ere, bete behar ditu Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruz otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatutako baldintzak, eta haien artean: Irurako ikastolak, genero-ikuspegia kontutan hartu beharko du ondorengoak betez:

-Ikastolaren jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

-Bermatu beharko du, ikasle guztiak aukera berdina edukitzea sexuaren arabera bereizketarik egin gabe. Gainera, ez du onartuko ikasleen arteko genero bereizketarik.

-ez du sortuko sexuagatiko bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

17.- Hitzarmen honen klausulak interpretatzeko orduan gerta daitezkeen zalantzak udalak erabakiko ditu.

18.-Hitzarmen honetako klausulak ez betetzeak hitzarmena desegitea ekarriko du.

Nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut, eta bi alderdiak ados daudela adierazteko, hitzarmen hau izenpetu dute nirekin batera, goian adierazitako egun eta lekuan.

ALKATEA

IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA.

## **BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.**

### **9.- SAN MIGEL JAIETAKO AURREKONTUAREN BERRI EMATEA.**

Alkateak adierazi du San Migeletako aurrekontua aurkezten dela baina aurkeztatuko datuetan sarretan akats bat dagoela.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

<b>IRURAKO SANMIELAK 2022</b>			
<b>AURREKONTUA</b>			
<b>Gastuak</b>			
<b>Irailak 23</b>		<b>Irailak 30</b>	
Txupinazoa	212 €	Jokuak haurrentzat + buruhandiak	600 €
Kalejira buruhandiekin	500 €	ZIRKUS ikuskizuna	2.200 €
Barrikotea	385€	Kalejira eta txistor jatea	200 €
Erromeria.eus	810€	Playback	200 €
<b>Irailak 24</b>		<b>Urriak 1</b>	
Gazte festa	1.010 €	11:00 Kataluniako dantzariak	2.200 €
Haur parkea	1.760 €	14:00 Herri bazkaria (tiketak) + musika	5.9500 €
Haurren bazkaria	675 €	Onintza abesbatza+ Papiro	350 €
Xare txapelketa	3.000 €	DJ Bull	1.500,00 €
Elektrotxaranga	425 €	<b>Urriak 9</b>	
Kontzertua	13.735	Jubilatuena bazkaria+ Erromeria.eus	2.700€
<b>Irailak 25</b>		<b>Gastu orokorrak</b>	
Patata tortila lehiaketa	800 €	Programa + kartelak	1.730 €
BikeShou	1400 €	Oholtza + komunak + kamerinoa+Karpa	4.791 €
19:00 Sagardo dastaketa	2226 €	Goxokiak, zapiak, suziriak,...	1.200 €
<b>Irailak 29</b>		Beste batzuk	651€
Diana txistulariekin	540 €	<b>Guztira gastuak:</b>	<b>60.000€</b>
Hamaiketakoa	2.500 €		
Antzerkia	3.850 €	<b>Sarrerak</b>	
Bertso saioa	1.900 €	Taberna, denda eta lantokien ekarpena	4.670€
		Sagardo dastaketa eta pintxoak	1.500€
		Barraka eta salmenta postuen tasak	300€
		Jaietako zapien salmenta	240€
		Herri bazkariko txartelak	4.400€
		KAB diru-laguntza Zirkus eta Nire sudur puntan	2326€
		<b>Guztira sarrerak</b>	<b>9.036€</b>

## 10.- KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENAK:

Kontuhartzaileak bi txostenen informazioa eman du eta aldeko datuak direla adierazi du, aurrekontu exekuzioa ongi doala adierazi du.

## 11.- GALDE-ERREGUAK.

Ez dago.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**